

Uraren kutsadurari buruz sentsibilizatzen

AMVISA eta Egibide elkarlanean, gazteekin uraren balioari eta sortzen ari den kutsadurari buruzko tailerrak egiteko.

Martxoaren 22ko astean, Uraren Mundu Egunean, ingurumen hezkuntzako lehen tailerrak eman ziren, DBHko 2. zikloari zuzendutakoak, bereziki uraren kutsaduraren dimentsio soziala eta etxekoa ardatz hartuta. **"Laborategi bat zure komunean"** izenburupean, egunero erabiltzen ditugun substantzia kimikoen kantitateari eta horiek ingurunean duten eraginari buruzko kontzientzia helarazi nahi izan die tailerrak ikasleei. Horretarako, edozein komunitetan ohikoak diren kosmetika eta higiene pertsonaleko produktueta substantzia horiek ezagutu eta identifikatzeko erronka planteatu da, eta,aldi berean, isurketen ondorengo tratamenduan eta ingurunean duten inpaktuan substantzia horiek desagerraztearen konplexutasuna ikusi da.

Ondorengo tailerretan batxilergoko ikasleentzako erronkak landuko dira, eta haiekin

"**Garbiketaren kimika**" landuko da, eta prestakuntza zikloetako ikasleei **"Kontzentratu zaitez: dosi perfektua"** tailerra emango diete. Lehenaren helburua da **norberaren higienarako eta etxeko garbiketarako produktuen konposizio kimikoa deszifratzen** ikastea da, eta produktu mota bakoitzaren elementuak eta substantziak ezagutzea eta erlazionatzea, osagaien zerrendatik abiatuta. Finean, produktu horien erabilerak eta horien konposizioak ur zikinen arazketan eta ingurune hartzailean nola eragiten duten deskubritu eta aztertzea da xedea.

Bigarrenari dagokionez, **produktuen dosifikazioak eta erabilera egokiak substantzia kimikoek uretan duten eragina minimizatzekeo duten garrantzia** aztertuko da tailerlean, eta herritarrek arazo horretaz hobeto jabetzeko irtenbideak nola aurkitu ere landuko da.



Jardueren diseinua curriculumaren edukietara egokitu da, erronkaren eta esperimendazioaren bidez eguneroko zientziaren zeregina indartzeko. Arloko profesionalak online ematen dituzte, Egibideko irakasleekin lankidetzan.

Urik gabe, ez osasunik ez eskubiderik



Edateko ura eta saneamendua lortzeko oinarrizko eskubidea bermatzen laguntzeko, AMVISAK Euskal Fondoak eta tokiko GGKE-ek gauzatutako **lankidetzako proiektuak** babesten jarraitzen du. Hauek dira berrienak eta gaur egun gauzatze fasean daudenak:

- **"Ata ibaiaren goiko aldean hiru bidexkatarako akueduktu komunitarioko sistema eraikitzea", Planadasen (Kolonia).** 300 onuradun ditu, Kolonia-Euskadi Elkarteak da egilea, eta 125.000,00 euroko dirulaguntza dauka.
- **"H2O-Chiara: ura eta saneamendua landa eremuko hiru herritan" Ayacucho (Peru).** 443 onuradun ditu, Arabako Medicus Mundik gauzatua, 84.790,20 euroko dirulaguntzarekin.
- **"Boliviako Kajchiri saneamendurako giza eskubidea gauzatzea komunitateko kideentzat",** 278 onuradunekin, Lankidetzarako Ingeniaritza elkarteak gauzatua, 50.000,00 euroko dirulaguntzarekin.
- **"Edateko ur eta saneamendurako giza eskubidea, Herion (Ginea)".** 3.332 onuradun Nazioarteko Elkartasuna elkarteak gauzatuta, AMVISAREN 15.209,80 euroko dirulaguntzarekin eta Udalaren 44.399,52 euroko dirulaguntzarekin.

Hori izan da Udaleko Garapenerako Lankidetzako Zerbitzuak eta AMVISAK aurten Uraren Mundu Eguna aldarrikatzeko aukeratu duten mezua, zeinean NBEk uraren balioaz hausnartzeko gonbita egin baitugu. Izan ere, munduko biztanleen herenek oraindik ez dute edateko urik, ezta eskuak garbitzeko aukerarik ere.

Gogoratu Aldatu faktura elektronikora eta paper kontsumoa murriztuko duzu!



SARS-CoV-2 ur zikinetan

Krispiñako UZAK jasotzen dituen hiriko ur zikinetan SARS CoV-2aren presentzia eta bilakaera aztertzen jarraitzen du, Europar Batzordearen gomendioekin bat etorritik. Helburua da pandemiaren intzidentziaren gorabeherak aurreikustea eta osasun agintariei abisu ematea birusaren presentziaren gorakada nabarmenen aurrean, herritarren artean kasuak ugari direla egiaztatzea aurretik.

VAT-ar proiektuak (MITECO) herritarren eskura jartzen ditu emaitzak, Ministerioaren webgunean, www.miteco.gob.es (Uraren atala).

URBEHA Proiektuak (URA) aurrekoa osatzen du EAEko beste UZA batzuetan, eta emaitzak URAREN webgunean jartzen ditu: www.uragentzia.euskadi.eus.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org

